



DONOSTIAK EKOHONDARTZEN BANDERA BERRETSI DU CASTELLÓN

Donostiako hondartzak hiriaren irudi dira, eta kudeaketa-eredu gure herriko kostaldeko toki askotan.

Castellón egin den Hondartzen Nazioarteko XXIII. Biltzarrean, Donostiako hiru hondartzek ekohondartzen bandera lortu dute berriz ere. Bandera horrek ziurtatzen du hareatzak ondo kudeatzen eta garbitzen direla, uren kalitatea eta ingurumen-politika egokiak direla eta hobekuntzak egin direla hondartzetan erabiltzaileei ematen zaien zerbitzuan.

Hondartzetako zinegotzi ordezkari Carlos Garcíak nabarmendu duenez, “Donostiako hondartzetako zerbitzuen eta garbiketaren kalitatea berrestez gain, aintzat hartu da sorospen-zerbitzurako ontzi motordun bat erosi izana ere. Hain zuzen, udan ontzi hori ez bakarrik erabili da bainularien larrialdiei erantzuteko, baizik eta baita karabela portugesen eta beste marmoka batzuen aurrean jarduteko ere. Horrez gain, sorospen-zerbitzuak artatzen dituen pertsonen pribatutasuna gordetzeko babes-pantailak erosi izana ere nabarmendu da Castellón egindako biltzarrean”.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Era berean, kontuan hartu da Kontxan eta Ondarretan bainulariak hobeto ikusi eta babesteko baliza berriak jartzeko prozesua amaitu izana, bai eta Zurriolan hondartzako erabiltzaileen eta surflarien arteko bizikidetzari buruzko argibideak dakartzan informazio-liburuxkak banatu izana ere.

Aurten, gai hauek eztabaidatu dira Castelloko biltzarrean: klima-aldaketak itsasertzean dituen efektuak eta ondorioak, kostaldea behatzeko eta zaintzeko erabiltzen den teknologia, eredu turistikoak eta horrek kostaldean duen eragina, hondartzetako espezie inbaditzaileak (algak, marmokak...), arrainen ustekabeko etorrera masiboak, eta salbamenduarekin eta sorospenarekin lotutako kontuak. Aldi berean, Castellóngo hareatan makineriari eta teknologiari buruzko erakusketa bat egin da.

Donostia izan da erakunde horren biltzar gehien egin den hiria, 1985ean, 1987an, 1989an eta 2017an, eta bil daitezkeen ekohondartzen bandera guztiak bildu ditu.